



## **JARRAIBIDEAK, Hezkuntzako sailburuorderenak, 2022-2023 ikasturterako EAeko Oinarrizko Hezkuntzako eta Batxilergoko ikasleen ebaluazioa, igarotzea eta titulazioa arautzeko**

Joan den ikasturtetik, **EAeko hezkuntza-sistema eraldatzeko prozesu batean** gaude. Asmo handiko prozesua da, eta zaharbertitutako lege-ordenamendua eskatzen du, biztanle guztien hezkuntza- eta prestakuntza-aukerak zabaltzeko, ikasleen hezkuntza-arloko emaitzak hobetzen laguntzeko eta guztiok kalitateko hezkuntza izateko eskaerari erantzuna emateko. Jakitun gara, araudi aldaketa batean gauden honetan, ikastetxeek denbora beharko dutela curriculumaren garapen konpetentzialak dakarren begirada berriak eskatzen dituen egokitzapenak garatu eta txertatu ahal izateko.

Berritze horretan, oinarrizko araudiak **aldaketak** ekarriko ditu fase batzuetan. **2021-2022 ikasturtearen** hasieran aldaketak ezarri ziren **ebaluazioan** eta hezkuntza-etapetako **igarotze-baldintzetan**, baita Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko **titulua** eskuratzeko baldintzetan ere; alabaina, 2022-2023 ikasturtera arte atzeratu ziren etapa bakoitzeko **curriculumean, antolakuntzan eta helburuetan** egindako mailaz mailako aldaketak ezartzen hastea.

Derrigorrezko hezkuntza eta Batxilergoa osatzen duten etapetako lege-ordenamendu berriak aldatu egiten du **ebaluazio, igarotze eta titulazioaren** erregulazioa, eta, batez ere, hauetan oinarritzen da: helburuak lortzea eta oinarrizko/funtsezko konpetentziak eskuratzeko. Esparru horrekin bat etorruta, **bereziki garrantzitsua da taldearen jarduketa kolegiatua**, hark baitu ikasleak hurrengo mailara igarotzeari eta titulua lortzeari buruzko erabakiaren erantzukizuna.

**Alderdi nabarmenen artean**, azpimarratu behar da oinarrizko hezkuntzan **eskola-maila berean geratzea salbuespeneko** neurritzat hartu behar dela, eta soilik behin erabili ahal izango dela Lehen Hezkuntzan eta, gehienez, birritan derrigorrezko irakaskuntzan zehar. Erabaki horrekin batera, **norbanako plan espezifiko** bat egin beharko da, lortu ez diren konpetentziak eskuratzen laguntzeko.

Planteamendu horri jarraikiz, aurreikusten da Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza amaitutakoan etapako konpetentziak eta helburuak lortu dituzten ikasleek **Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatu-titulua** eskuratzeko dutela, **irakasleek era kolegiatuan** hartutako **erabakien ondorioz**.

**Batxilergoan**, jakintzagai bakoitzeko irakasleek erabakiko dute, ikasturtea amaitzean, ikasleak helburuak lortu ote dituen eta kasuan kasuko konpetentzien eskuratzeko-maila egokira iritsi den ala ez. Batxilergoko lehen mailatik bigarrenera igaroko dira ikasleak ikasitako jakintzagaiak gainditzen dituztenean edo gehienez ere bi jakintzagaitan ebaluazio negatiboa dutenean. Titulua lortzeko, ebaluazio positiboa lortu beharko da Batxilergoaren bi mailetakoko jakintzagai guztietan. Nolanahi ere, irakasle taldeak **salbuespenez** aukera izango du erabakitzeke jakintzagai bat ez beste guztiak gainditu dituen ikasleak Batxilergoko titulua eskuratzeko duela, betiere uste badu titulu horri dagozkion helburu eta konpetentziak lortu dituela, unibertsitateko irakaskuntzan dauden konpetentzia-sazio-prozeduren antzera.



Jarraibide hauetan jasotakora **egokitu beharko dira** bai gaur egun LHko 2., 4. eta 6. mailetarako, DBHko 2. eta 4. mailetarako eta Batxilergoko 2. mailarako indarrean dauden **curriculum**a ezartzeari eta abian jartzeari buruzko **dekretuak**, bai ikasleak ebaluatzeko indarrean dauden aginduek ezartzen dituzten arauak; izan ere, jarraibideon helburua da ebaluazioaren objektibotasuna bermatzea, ikasleek eginiko ahaleginak aitortzea eta, eskuratutako gaitasun-aurrerapenen eta lorpen akademikoen balorazio zuzena eta zorrotza sustatzea, kontuan izanda ikasturte honetan irakaskuntza-ikaskuntzako prozesua garatzen ari den trantsizio-testuingurua. Aipatu ez diren gainerako ikasturte eta/edo mailetarako, jarraibide hauek koherenteak dira dagozkien dekretuen zirriborroetan adierazitakoarekin, “Hezigunearen” bitartez eskura daitezkeenak. Hori guztia inklusio, ekitate eta aukera-berdintasun, efikazia, proportzionaltasun, segurtasun juridiko, gardentasun, efizientzia eta beharrianaren printzipioen arabera.

### **Lehenengoa. Xedea eta aplikazio-eremua**

EAEko ikastetxe guztietako oinarrizko hezkuntzako eta Batxilergoko ikasleen ebaluazioa, igarotzea eta titulazioa lortzeko prozesuak egokitzea da jarraibide hauen xedea 2022-2023 ikasturterako.

### **Bigarrena. Ebaluazioaren erreferenteak**

Jarraibide hauetan jasotako xedapenen aurka ez doan guztian, LHko 2., 4. eta 6. mailetarako, DBHko 2. eta 4. mailetarako eta Batxilergoko 2. mailarako, eta indarrean dauden bitartean, dekretu hauen edukia hartuko da oinarri, 2022-2023 ikasturteko ebaluazio-prozesuan:

- 236/2015 DEKRETUA, abenduaren 22koa, Oinarrizko Hezkuntzaren curriculum a zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzen duena.
- 127/2016 DEKRETUA, irailaren 6koa, Batxilergoaren curriculum a zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzen duena.

Etap a bakoitzeko gainerako mailetarako, jarraibide hauez gain, dagozkien dekretuen zirriborroak aplikatu behar dira. Dekretu horiek “Hezigunean” daude eskuragarri.

Edonola ere, hezkuntza-etapa bakoitzaren irteera-profilean zehaztutako oinarrizko konpetentzien garapen-maila izango da ikasleen ikaskuntza ebaluatzeko prozesuaren ardatz. Oinarrizko konpetentzien garapen-maila hori curriculumean, ICPn eta maila bakoitzerako programazio didaktikoetan jasotako arlo eta jakintzagaien helburuen lorpen-mailen bitartez zehaztu eta ebaluatuko da. Garapen maila hori dagozkion ebaluazio-irizpideen bidez behatu behar izango da.

Gainera, ikasleek eskubidea dute beren ardura, ahalegina eta errendimendua objektibotasunez aintzat hartu eta balioets diezaieten, abenduaren 2ko 201/2008 Dekretuaren 9. artikuluan jasota dagoen moduan (Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko ikastetxeetako ikasleen eskubideei eta betebeharrei buruzkoa).



## **Hirugarrena. 2022-2023 ikasturterako programazio didaktikoak doitzea**

Sarreran esan moduan, aurtengo trantsizio testuinguru honetan, ikastetxeek maila bakoitietako programazioak egokitzen joan beharko dute. Egokitzapen hori ikastetxe bakoitzaren errealitatetik abiatuko da; horrek esan nahi du ikastetxe bakoitzak bere erritmoak ezarri eta denborak hartu beharko dituela.

Programazio didaktikoari esker, ikastetxearen curriculum-proiektua zehaztu eta testuinguruan jar daiteke arlo edo jakintzagai bakoitzean. Programazioak egiten laguntzeko, Hezkuntza Sailak gida bat argitaratuko du.

Ikastetxe bakoitzak, bere autonomia pedagogikoa garatu ahala eta etapak arautzen dituzten dekretuetan edo dekretuen zirriborroetan ezarritakoarekin bat etorruta, oinarrizko curriculum-elementuetan lortu beharreko gutxieneko mailak identifikatu behar ditu kasu bakoitzerako, nahikoa kompetentzia-maila eskuratu dela bermatzeko. Maila hori funtsezko erreferentzia izango da ebaluazioari eta hurrengo mailara igarotzeko buruzko erabakiak hartzeko.

## **Laugarrena. Ebaluazioari buruzko jarraibide orokorrak**

Ikastetxeek eta irakasleek askotariko ebaluazio-prozedurak aplikatuko dituzte, erabilitako hezkuntza-metodologiarekin koherenteak, etapa bakoitzera eta, besteak beste, arlo/jakintzagai/eremu/modulu bakoitzera egokituak, ikasleen gaitasunetara eta ezaugarrietara egokituak, zeinak, nolana ere, etengabeko ebaluazioaren parte izango baitira.

Horrela, ikasleen ikaskuntzen azken ebaluazioak kontuan hartuko du ikasturtean garatutako etengabeko ebaluazio-prozesua hezitzailean bildutako informazio guztia, eta bereziki baloratuko du lortutako kompetentzien garapen-maila eta ikaskuntza-helburuen lorpen-maila.

Ikasleen ebaluazio-txostenetan jasoko dute ikastetxeek eta irakasleek ikasturtean eginiko lanaren balorazioa. Txosten horiek informatzeko eta orientatzeko izango dira, eta, hala badagokie, eskuratu ez diren ezinbesteko ikaskuntzak eta eragin duten inguruabarrak zehaztuko dituzte, betiere informazio hori garrantzitsua bada 2023-2024 ikasturterako errefortzu edo errekupeazio programen plangintzan.

Ikasturtea errepikatzea salbuespenezko neurria izango da, eta funtsez arrazoituta egon beharko du. Horrekin batera, norbanako plan espezifiko bat egingo da, lortu ez diren kompetentziak eskuratzen laguntzeko.

## **Bosgarrena. Hezkuntza-etapa bakoitzeko ebaluazioari, igarotzeko eta titulazioari buruzko jarraibide espezifikoak**

Jarraibideon eranskinetan (I. eranskina\_ Lehen Hezkuntza; II. eranskina\_Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza; III. eranskina\_ Batxilergoa, eta IV. eranskina\_ Helduen hezkuntza), hezkuntza-etapa bakoitzerako arau eta argibide espezifikoak jasotzen dira.



## **Seigarrena. Hezkuntza-laguntzako premia bereziak dituzten ikasleen ebaluazioa**

Eskola inklusiboaren esparruan, ebaluazio-prozesuek erreferentziatza izan behar dituzte ikasle bakoitzaren ezaugarriak eta trebetasunak, eta horietara egokitu behar dira.

Hezkuntza-laguntzako premia espezifikoak dituzten ikasleak inklusio-printzipioei jarraikiz ebaluatuko dira, eta diskriminaziorik ez jasateko eskubidea eta, hezkuntza-sisteman sartzeko eta bertan irauteko benetako berdintasuna bermatuko zaie.

Norbanako Jarduketa Planetan ezartzen diren ebaluaziorako eta hurrengo mailara igarotzeko irizpideak funtsezko erreferentzia izango dira ebaluazio-prozesuan.

Lan-plan pertsonalizatuak curriculum-egokitzapen esanguratsuak ezartzen baditu, ebaluaziorako eta hurrengo mailara igarotzeko irizpideak egokitzapen horietarako onartutakoak izango dira.

Irakasle taldeak ebaluazio-neurri eta -tresna egokienak ezarriko ditu, ebaluazioa egiteko baldintzak hezkuntza-laguntzako premia bereziak dituzten ikasleen beharretara egokitu daitezten.

## **Zazpigarrena. Ebaluazio-dokumentuak**

Ebaluazio-dokumentu ofizialak hauek dira: ikaslearen ikasketa-espeditentea, ikasketen historia, ebaluazio-aktak, lekualdatze-txosten pertsonala, azken ebaluazioan lortutako mailaren berri ematen duen txostena, etapa amaierako txostena eta orientazio-aholkua.

Hezkuntzako Ikuskaritzak jarraibideak argitaratuko ditu, etapetako dokumentazio akademikoa betetzen laguntzeko ikasturte hau amaitu baino lehen.

## **Zortzigarrena. Berrikuspen- eta erreklamazio-prozedura**

Ikasleen ebaluazio objektiborako eskubidea bermatze aldera, ikastetxeek kalifikazioen berrikuspen- eta erreklamazio-prozedura jakinaraziko dute.

V. eranskinean, berrikusteko eta erreklamazioa egiteko barne- eta kanpo-prozedura jasotzen dira.

## **Bederatzigarrena. Irakaskuntza-prozesuak ebaluatzea**

Irakasleek ikasleen ikaskuntza, irakaskuntza-prozesuak eta beren irakasle-lana bera ebaluatuko dituzte; horretarako, lorpen-adierazleak ezarriko dira programazio didaktikoetan.

Aldian-aldean, irakasle taldeak ikasleen ebaluazioaren eta irakaskuntza- eta ikaskuntza-prozesuaren emaitzak aztertuko ditu, dagozkion aldaketak proposatuko ditu eta prozesua hobetzea sustatzeko erabaki egokiak hartuko ditu. Hori hobekuntza-helburuetan zehaztuko da, eta familiekin eta hezkuntza-laguntzako zerbitzuekin lankidetzan, ikasleek ikaskuntzarekiko duten motibazioa sustatzeko eta antzemandako zailtasunak konpontzeko aukera emango dute. Helburuak eta ezartzen diren ohiko edo ezohiko neurriak ikastetxearen urteko memorian edo dokumentu baliokidean jasoko dira.

**Hamargarrena. Hezkuntzako Ikuskaritzaren gainbegiratzea**

Hezkuntzako Ikuskaritzari dagokio ebaluazio-prozesuaren garapenean aholku ematea eta hura gainbegiratzea, bai eta hori hobetzeko neurriak hartzea ere. Halaber, aplikazio informatikoak behar bezala betetzen direla eta dagozkien Ziurtagiri digitalak-Historia Akademikoak egiten direla begiratuko du.

Ikastetxeetara eginiko bisitetan, ikuskariak zuzendaritza-taldearekin, irakasleekin eta ebaluazioaren gainerako arduradunekin bilduko dira, eta arreta berezia jarriko dute ikasleen ebaluazioaren emaitzak baloratzeko eta aztertzeko prozesuetan.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko abenduaren 20an

BEGOÑA PEDROSA LOBATO  
Hezkuntzako sailburuordea